

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jasone Gorroño Aldai

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1954)*

Aurkibidea



Biografia



Durana kalean jaioa, aita Aretxabaletakoa zuen eta ama Mendiolakoa. Amak eta amonak hika egiten zioten, eta aitak etxean erdaraz hitz egitea galarazten zien, kalea erabat erdaldunduta zegoen garaian. Mojetan ikasi zuen umetan. Laboral Kutxan egin du lana erretiroa hartu arte, baina euskararen aldeko lanetan ibili da beti: Beinke euskara taldean lehenengo, Loramendi elkartearen gero, gau eskolan eskolak ematen... Orain hikalagunean hartzen du parte eta elkarrizketa hitanoari buruz egin diogu, Mila Zubizarretarekin batera.

Zintak

ARE-083

- **Proiektua:** Aretxabaletan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-03-05
- **Iraupena:** 106 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Lagunartean euskaraz egiteko hautua

- **Erref:** ARE-083/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:01:28. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jasoneri amak eta amandreak hika egiten zioten. Garai batean kalean ez zen euskaraz egiten, baina, zorionez, beraiek lagunartean euskaraz aritzea erabaki zuten. Mutilak ere bazituzten kuadrillan eta hika egin izan du berak, hurbiltasuna ematen diolako. Kuadrillatik kanpoko beste batzuei ere egin izan die hika, baina sarritan ez du erantzunik jaso izan. Neskei egitea zailagoa dela dio.

2. Hika, kontzienteki

- **Erref:** ARE-083/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gaur egun kontzienteki egiten du hika Jasonek. Umeei eta txakurrei ezin diela zuka egin dio. Amak eta amamak egiten zioten hika berari; aitzak ez. Anaiaekin hika egin izan du beti; ahizparekin ez, ordea. Gerora hasi da ahizparekin hika, kontzienteki. Batzuetan gertatzen da senide gazteenei zuka egitea. Milak, adibidez, zuka egiten zion zortzi urte gazteagoa den anaiari.

3. Hika erantzutearren burla

- **Erref:** ARE-083/007
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:06:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jasone gaztea zela, behin hika hitz egin zion herritar bati eta hark burla egin omen zion. Lur jota iritsi zen etxera, baina bazekien bera zela zuzen zebilena.

4. Kaletarren eta baserritarren euskararen aldea

- **Erref:** ARE-083/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:06:23. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Milak uste zuen Aretxabaletako bere adineko neskek berak baino hobeto egiten zutela euskaraz. Euskaraz alfabetatzen hasi zenean, konturatu zen ez zela hala. Euskararen aldea dagoela kaletarren eta baserritarren artean dio.

5. Baserritarra eta hika-hiztuna izatearren konplexua

- **Erref:** ARE-083/011
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:07:59. **Bukatu:** 00:11:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Milak etxean jaso zuen hika. Hizkera zakarra eta baserritarra zela esaten zen eta kalera joandakoan konplexua izaten zuen. Ondorioz, zuka entzundakoan goxoagoa zela iruditzen zitzaion. Euskaraz alfabetatzeak indarra eta konfiantza eman zizkion. Jasoneri ere baserritarra ote zen galdetzen zioten, hika egiteko ohitura zuelako. Milak Appahi aplikazioko ariketak erraz egin dituela, hika badakielako, eta horretaz harro sentitu dela dio.

6. Hikaren inguruko konplexua uxatzen

- **Erref:** ARE-083/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Milak dio bere buruarekin borroka izan duela hika erabiltzearen inguruan, hikaren inguruko konnotazio negatiboa oso barneratuta zuelako. Hikaren aldeko mugimenduak poza eman dio. Aurreko belaunaldietan hika normaltasunez erabiltzen zen. Jasonek ama ahizpekin hika entzuten zuen. Jasonek ez zuen izan hikaren inguruko konplexurik; Milak bai.

7. Aita zorrotza euskara kontuekin

- **Erref:** ARE-083/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:26:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jasoneren aita oso zorrotza zen euskara kontuekin. Gaztelan egiten zuenari ez ziola pagarik emango esaten zien (nahiz eta paga beti amak eman) eta gero tranpa txikiak jartzen zizkien. Amari aitak irakatsi zion gaztelan. Gero, lagun batekin gaztelan entzuten zuenean, amorratu egiten zen. Gerraostean egon zen gaztelan egiteko joera, dotoreagoa zelakoan.

8. Konplexua euskalkiarekin

- **Erref:** ARE-083/021
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:27:48. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskalkiarekin konplexuak egon dira; gipuzkera hizkera goxoagotzat hartu izan da. Neurri batean elizaren eraginez izan dela diote, elizak gipuzkeraren aldeko hautua egin zuelako. Milari Tolosan gertatutako anekdota. Eskolan ere euskara batua irakasten da, baina Jasoneri naturalagoa iruditzen zaio ahoz bertako euskara erabiltzea.

9. Bergaran ez zelakoan euskaraz egiten

- **Erref:** ARE-083/023
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Gaztelaniaz ikasi zuten eskolan. Mojetan ibili zen Mila 12-13 urtera arte. Jasone, berriz, Bergaran. Osaba-izeben etxean egoten zen eta han dena euskaraz entzuten zuen arren, Bergaran ez zela euskaraz egiten uste zuen. Gerora jakin zuen orduan gaztelaniaz ezagutu zituenek bazekitela euskaraz. Aretxabaletan ere kalean gutxi egiten zen euskaraz.

10. Hikarik ez nagusiagoei eta senar-emazteen artean

- **Erref:** ARE-083/027
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:40:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jasoneren anaia bikotearekin hika hasi zen, ikas zezan, baina ama haserretu egiten zen, senar-emazteen artean hika egitea ez zela egokia iritzita. Seme-alabek gurasoei hika egitea gogorragoa egiten zaio Milari. Nagusiagoei hika egitea ere ez da ohikoa izan. Pare bat kasu kontatzen dituzte.

11. Konplexuen eragina hizkuntzan

- **Erref:** ARE-083/031
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:46:56. **Bukatu:** 00:48:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Gaztelaniaz egitea kutsakorra dela diote. Taldean norbaitek gaztelaraz egiten badu, norberari ere nahi gabe ateratzen zaio. Mila gaztetan gaztelaniaz ondo egiten saiatzen zen, baserritarra zela igarri ez zedin. Jasonek hizkuntzarekiko kontzientzia zuen, baina Milak ez, eta zerabilen hizkerak prestigiorik ez zuenez, konplexua zuen bere hizkerarekiko.

12. Gaztetan lagunartean gaztelaniaz; euskaraz egiteko hautua

- **Erref:** ARE-083/035
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:51:49. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Milarentzat oso garrantzitsua izan zen hizkuntza baloratzea. Jasonek lagunekin gaztelaniaz egiten zuen gaztetan, baina une batetik aurrera euskaraz egiteko hautua egin zuten, kontzienteki. 6-7 lagun izango ziren hautu hori egin zutenak. Gerora, mutilekin elkartu ziren eta euskararen erabilera indartu egin zuten.

13. Euskal kontzientzia piztuta, euskaraz egiteko erabakia

- **Erref:** ARE-083/037
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:54:29. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Jasonek eta lagun batzuek euskararen aldeko hautu kontzientea egin zuten gaztetan, euskal kontzientzia pizten hasi zitzaizenean. Aitak Aberri Egunean ikurrina zuen postaltxo bat jartzen zuen urtero irratiazen ondoan eta sestra sortzen zen etxean. Behin lagun batek azaldu zion hura zela euskaldunen bandera. Bilerak egiten eta kontzientzia politikoa hartzen hasi ziren pixkanaka.

14. Mutilei errazago hika neskei baino

- **Erref:** ARE-083/040
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Milak baserriko koinatari hika egiten dio, hark zuka egin arren, baina alabari eta iloba neskari zuka; semeari eta iloba mutilei, berriz, hika. Jasonek ere aitortzen du errazagoa egiten zaiola mutilei hika egitea neskei baino.

15. Euskararen erabilera asko jaitsi da Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-083/047

- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:12:44. **Bukatu:** 01:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gazteek ez dute hika erabiltzen. Euskararen erabilera asko jaitsi dela herrian diote.

16. Azpeitian irakasleek elkarrekin hika

- **Erref:** ARE-083/050
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:16:38. **Bukatu:** 01:17:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Milak Aretxabaletako ikastetxe batean lan egin zuen lehen aldiz atezain gisa. Han gaztelaniaz entzuten zuen dena. Handik Azpeitira joan zen lanera eta bestelako giroa aurkitu zuen. Irakasleek euskaraz ez ezik hika egiten zuten elkarrekin Azpeitian.

17. Loramendi Elkartek euskarari emandako bultzada indargabetzen

- **Erref:** ARE-083/052
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:18:22. **Bukatu:** 01:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkartek
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Loramendi Euskara Elkartea sortu zen garaian, euskara asko indartu zen eta ia ez zen gaztelaniarik entzuten Aretxabaletan. Loramendi Elkartek lanean jarraitu arren, euskararen egoera gainbehera joan da. Eskoriatzan euskararen egoera eskasagoa izan da eta beharbada hango ikasleak Aretxabaletara etortzeak ere izan zezakeen eragina. Gaur egun Eskoriatzan bertan agian hobe izango dela euskararen egoera dio jasek.

18. Umeak gaztelaniaz, euskaraz jakin arren

- **Erref:** ARE-083/054
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:21:59. **Bukatu:** 01:22:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen egoera ez da oso ona Aretxabaletan gaur egun. Ume guztiek dakite euskaraz , baina ez dute erabiltzen.

19. Euskarazko alfabetatze-eskolak ikastetxeetan

- **Erref:** ARE-083/055
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:22:39. **Bukatu:** 01:24:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Ikastola publiko bihurtu zen 1994an eta ikastolako lehenengo mailetak umeak Kurtzebarri ikastetxekoekin nahastu ziren. Bi eredu zeuden artean, B eta D. Aurretik, euskarazko alfabetatze-eskolak eman ziren ikastetxeetan, eskola orduetatik kanpo. Jasone aritu zen eskolak ematen `Euskalduntzen´ liburuarekin. Aretxabaletan arazorik ez, nahiz eta zenbaitek gogoko ez izan; Eskoriatzan, berriz, gaizki ikusita zeuden eskola horiek, euskararen kontrako jarrera zuen jendea zegoelako.

20. Euskararen prestigioa gainbehera

- **Erref:** ARE-083/057
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:26:00. **Bukatu:** 01:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Garai batean euskarazko alfabetatze-eskoletan ibili zirenek euskaraz ikasi dutela gerora dio Jasonek, euskararekiko interesa izan dutelako. Euskarak prestigioa zuen orduan, baina prestigio hori galtzen joan da.

21. 80ko hamarkadan, euskararen aldeko olatua

- **Erref:** ARE-083/059
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:27:35. **Bukatu:** 01:29:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Mila 1983an AEKn lanean hasi zenean, euskararen aldeko olatua zegoen. Alfabetatze taldeek euskalduntze taldeek baino poz handiagoa ematen zieten, jendea kontzientziazatzen ari zen seinale zelako. Bestelako taldeak ere sortu ziren herrian, mendi taldea, esaterako. Garai horretan ez zutela gaztelaniaz hitz egiteko beharrik diote. Gaur egun asko jaitsi da erabilera. Kontzientzia falta dago.

22. Euskarazko aditz eta egitura okerrak ugaltzen

- **Erref:** ARE-083/060
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:29:28. **Bukatu:** 01:31:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Gramatika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Jasonek dio umeez gaur egun ez dutela iraganeko aditz-formarik erabiltzen euskaraz hitz egiterakoan. Forma okerrak ari dira zabaltzen; zenbait adibide.

23. Hikaren inguruko gogoetak edo zalantzak

- **Erref:** ARE-083/064
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:35:37. **Bukatu:** 01:39:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euren buruari hika egiten diote. Jasonek dio berari idatziz ere hika ateratzen zaiola nahi gabe. Hikaren inguruan izaten dituzten zalantzak: mezuak idazterakoan aditza nola idatzi, talde oso bati idazterakoan nola idatzi... Zenbait adibide. Txakur emeei noka egiten diete. Jasonek dio zenbait gizonezkoek toka egiten diotela berari.

24. Hitanoaren egoera euskararen egoera txarrarekin lotuta

- **Erref:** ARE-083/065
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:39:06. **Bukatu:** 01:40:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Pena handia hartuko lukete hika galduz gero. Mila orain konturatu da altxorra duela bere baitan. Hitanoaren egoera ahula da, baina euskararen egoera ahularen barruan kokatu behar litzateke.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com